



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure balorezko proposamena betetzeko, hainbat baliabide izango dira beharrezkoak, izan ere, ezinbestekoak izango dira enpresa hasi eta aurrera eramateko.

Baliabide fisikoak: Makina (erosi egingo dugu), lokala (propioa) eta kamioia (propioa). Horrez gain, lokalerako ordenagailua kontuan hartzekoa izango da.

Baliabide intelektualak eta giza-baliabidea: Ariadnaren administratzeko gaitasunarekin, Manex eta Anerren marrazketa eta diseinuan trebeziarekin eta Paulen gidatze habileziarekin denok bat egingo dugu proiektua aurrera egiteko.

Finantza-baliabideak: Hasiera batean banketxe baten finantziaketa lortu dugu; makinaren kostua eta hasierako beste gastu batzuk kubritzeko. Makina 5 urtetan ordainduko dugu, hilean 200 € inguru ordainduko dugu. Diru laguntzak jasoko ditugu, eta hauei esker ekonomikoki gure proiektua ondo joango da.

